

## BEDIA OINEZ EZAGUTZEN

### ANTXINAREN ARNASA, EROSO-UGARTEKO IBILBIDE EROSOAN

Gaurko ibilbidea leku baten hasi eta leku berean amaituko dogu: Bedian, mundua biribila dan seinale. Plazatik urten eta joan eta joan plazara helduko gara, behinolako lanbide zaharrak gogoratuz, izadiaren doinu eztiak entzunez eta orainaren garrasi latzak jasanez...

Hasteko, Lemoara bidean, hainbat auzotan zehar: Jauregi, Ibarra, Barroeta eta Aldai. Gero, basoaren magalean murgilduko gara Zaukutzara heltzeko. Eta handik, barriri herrirako bidea hartuko dogu beste auzune honeek igaroaz: Utxarain, Ugarte, Eroso eta Asteitza. Bai, mundua biribila da!

Bedia Arratia eskualdean dago, Galdakao eta Lemoa bitartean. Bilbotik gatzela lehenengo herria da: Arratian sartzeko atea. Herria luzetara hazi da, tantai arrakalatu baten antzera, hiru zauri sakonek zeharkatzen dabe eta: 240 errepideak, Ibaizabal errekeak eta trenbideak.

Auzoak eta etxeak mehatz-mehatz egon izan dira lur eremu zabalean. Gaur egun asko hazita dagoan plaza ingurua izan da beti herriaren bihotza.

Herrigunean ezer handirik bada, eleizea dogu handiena: San Juan bateatzailearen eleizea. Ez da hain zaharra, 1742koa. Izan be, ordura arte Galdakaoko eleiz-parrokiaren ardurapean egoan ermitea zan, Bediako Kolazino legez. Izen hori, Kolazino, euskeraz herriaren izentzat erabilten da.

Kanposantu zaharraren aztarna bakarra plaza-plazan dago: Samariar Onaren Monumentua.

Begoña Linaza: "Kanposantua zabalik egoten zan; hormatxua euki eban baina bajua, eta atea gero ipini eutsien. Eukiten zituan panteoiak, kurutze marmolezko zuriakaz, baina zelaian. Holan egoten ziran horma bazterretan; erdian burdinazko kurutzeak, eta danean larrosa asko. Kapilea ez dakit gerreak bota baeban edo, ze Batzokia dan etxea be bonbeak bota eban, eta abadetxea be bai."

Rikardo Iñurria eskultoreak egina da, eta 1947an jarri eban, Juan Telesforo Artetxeren omenez, bere izeneko Fundazioak. Artetxe herriko aberats ongile bat izan zan; gaur egun be, eleizearen bitartez herriarentzat izentauta dago bere ondasunen ekarpen txiki bat.

Herriko plaza inguruan batzen dira, eleizeaz gain, beste zerbitzugune gehienak: eskolea, esaterako, nahiko barria da, 70eko hamarkadakoa, aurretik egoanaren leku berean egina.

Marcelino Uribiondo izena dauka, herriko gizon ospetsu horren omenez. Don Marcelino organo jolea zan, eleizako koruko zuzendaria, sakristaua eta maisua. Eleiza ganeko lokaletan eukan bere eskolea, eskola pribadua esan daigun. Herriak egin eutsan omenaldiaren oroigarria eleizpean dago.

Gure ibilbidean Jauregi auzorantza egingo dogu. *Txokolateria* esaten jakon etxea daukagu lehenengo, Arratiako tranbiak bertan eukan geltokia. Jauregi edo *Jeuriko* etxeak Bediako lehenengo pisu-etxeak dira. Aurretik hor jauretzea egon ei zan, Jauregizuria, edo lekukoek

esaten daben moduan *Jeuziri*, eta hortik hartzen dau auzoak izena. Ondoan dagoz Jauregibekoa, Jauregizuriazarra eta Jauregizuriabarria; aurreko haren aztarnaren erakusgarri.

Gure ibilbidean Ibarra auzora heltzeko etxe adosauen urbanizaziotik igaroko gara. Kaminotik, sarrera-sarreran, baserri-azunea daukagu. Hortxe dagoz Errementariena eta Ibarra, beste batzuen artean.

Aurrera eginda Bediakoleara helduko gara. Deigarriena Palazioa dogu hemen, aldi baten aberatsen erakusgarri. Etxe amesgarria zan, iturri, frontoi eta guzti, arboladi eder baten barruan... Hor bertan zentralaran aztarnak dagoz. Bediakolea izenak argi erakusten deuskunez, olea izan zan behinola. Aldi baten entzungo zan bertan gabiaren mailu-hotsa burdinea lantzen! Handik gerora argi-indarra sortzeko zentraltzat erabili izan zan.

Guk errekarren bestekaldera egingo dogu, aurrean agertuko jakuz tren-geltokia eta trenbidea; ganetik igarota helduko gara Barroetara. Hemen beste auzune bat daukagu, lehenagoko baserri ederrez jantzia: Barroeta, Goienengobarri, Patroenabarri, Patroena, eta Goienengoa. Antxinaren arnasea hartzeko leku ezin hobea! Aurrera eginda, Eroso-Ugarterako bidea, jente askok paseorako erabilten dauena. Baina guk ezkertera egingo dogu Aldaira.

Hazelako aldasgorea Aldaiko etxera heltzeko! Zenbat behar, ezbehar eta eginbehar bizitzaren aldatsean! Handik aurrera basajaunak eta basandereak izango doguz bidelagun, ibilbide luzean zein laburrean. Laburretik Utxarain ondora helduko gara. Luzetik joan ezker, oster, Saukutzara, edo bertan esaten dan moduan *Sekutzera*. Hemen Saukutzabarri etxea dago bakarti. Gaur egun Aldundiak darabil baso-lanetarako. Hortik atxina arboladiuaren itzalpean egingo dogu aurrera, errekaostoen murmurio baketsua lagun. Inguru honek, badirudi, zurezko azala daukala, harrizko gorputza eta burdinazko bihotza, erreka harri gorrixkek erakusten daben burdina-koloretik.

Utxarain edo *Utxine* izango da hurrengo geldiunea. Utxarainetxebarri errotea zotinka dago: izan be, errotarriari soloan emoten jako jaten; baina orain, 'txorromenta daukanean, korromenta falta; eta korromenta daukanean, txorromenta'. Hurreratu ahala landaz inguratutako auzune osoaren ikuspegia hartuko dogu, baserri ederrak dituala: Etxezuri, Utxarainbekoa, Utxaraingoikoa, Errekagorri, Kareaga eta Etxatxu. Bertan dago erropak garbitzeko eta ganaduak edateko erabilten zan askea. Auzunetik urtekeran Utxaraingo olea edo *Utxingolea* dago, aldi baten olea izan zana. Zenbat tiriki-tauki-tauki!

Handik lasterrera Ugartera helduko gara. Hor dago Ugarteko eskolea, XX. mende hasieran Bizkaiko Aldundiak Bizkaia osoan jasotako auzo-eskolen sarekoa, euskerearen hauspo bizigarria. 70eko hamardakara arte erabili izan da. Ugartezarra etxean herriko tabernea egoan, bolatoki eta guzti, baina nozbait egin behar eta, azkenean, boleak 'ustelean' jota, 'txorra' egin eban.

Ibarretxe baserriaren ondotik, Erosorantza goazela Santo Tomas eta San Rokeren ermitea daukagu, albo-aterpe babesgarriagaz.

Jose Mari Larrea: "Hor santu bi dagoz: San Roke eta Santo Tomas, biak. Lehen egiten zan Santo Tomas, baina gero jaiak udan egiteko San Rokera pasau zan."

Auzo honetan etxe barriak egin dira, baina herriko etxerik zaharrenetakoak be bertan dagoz: Bengoetxezarra, Bengoetxebarri, Arteabaroena, Bazterretxe, Basterretxe Goikoa.

Hemendik aurrera Barroetara doan bidea daukagu. Gu oster, trenbidea zeharkatu eta erreka bestekaldera joango gara, baina oraingoan Asteitzako zubitik. Zubi hau barri samarra da, edadeko jenteak hondino be gogoratzen dau, Bediakolean moduan, lehen txanelean zeharkatzen ebela erreka.

Arantza Meabe: "Txanelean pasetan ziran alde batetik bestera. Astuin egoten zan txanela eta han pasetan ziran."

Erreka gonburu datorrenean, bildurgarria da uraren indarra, baina lehenago hortxe ikasten ei eben herriko mutikoek uger egiten.

Jose Luis Etxebarria: "Askea esaten jakon lekuan. Hatxak egiten eban zulo bat, eta hantxe ikasi genduan hemengo gazteriak gehienak uger. Gero, ikasi orduan, hemendik bidetik joanda, hortik eta Firestoneko fabrikara kauzea egoan, eta han kanalean egiten genduan uger."

Asteitza beste auzune bat dogu, zelai baten inguruan etxe multzotxoak daukala. 'Palazioa' esaten jakon etxea dago bertan, eta baserriak be bai, Eperrena eta Estarta; baina aspaldian, askotxo aldatu da Asteitza.

Hemendik amen baten helduko gara errepide nagusira, eta handik herriko plazara barriro, gaurko ibilaldia amaitzeko. Auzo, auzune, etxegune eta baso-inguruak igaro ditugu. Bediak hori danori eskaintzen deusku: bizitza biribilean lantzeko gunea dogu Bedia.